

Ez bada orain, noiz?

Ez ba gara gu, nortzuk?

IRAES 21eko Ikasleen DEIA

2010eko ekainaren 5etik 10era, Brasilian, **Nazioarteko Haur-Gazteen Konferentzia Brasil 2010: "Vamos cuidar do planeta"** ospatu zen. Bertan, **"Gazteen Arduren Gutuna: Zain dezagun planeta"** adostu zuten 62 herrialdeetatik etorritako 500 bat gaztek. Euskal Erkidego Autonomoan, Eskolako Agenda 21 programa garatzen duten ikastetxeen artean, "Eskola Jasangarriek" osatzen duten IRAES 21 sareak Arduren Gutuna ezagutzera ematearen erronka hartu du bere gain. Eta horretarako **"Ez bada orain, noiz? Ez ba gara gu, nortzuk?"** lemapean **ardurak ekimen** bihurtu nahi ditugu.

CPEIPS EL AVE MARIA HLBHIP	CEP ERETZA LHI	IES KANTAURI BHI	CPEIPS SAN JOSE DE FLOREAGA HLBHIP
IES AXULAR BHI	CPEIP ESKOLABARRI HLHIP	CPEIPS LA SALLE-BERROZPE HLBHIP	CEP SERANTES LHI
CEP BARRUTIA LHI	CPEIPS FRANCISCANAS DE MONTPELLIER HLBHIP	CPEIPS LAUAXETA IKASTOLA HLBHIP	CPEIPS VIRGEN NIÑA HLBHIP
IES BEURKO BHI	CEP ITSASOKO AMA LHI	CPEIPS MARIA ETA JOSE HLBHIP	CPEIPS VIZCAYA HLBHIP
CPEIPS ELGOIBAR IKASTOLA HLBHIP	CPES JESUS OBRERO BHIP	CPEIPS SAN JOSE HLBHIP(CARMELITAS)	

Gaur, Busturiako Madariaga Dorretxean, Biodibertsitate Zentroan, IRAES 21 sareko ikasleok elkartu gara eta Brasilen eta Euskadin ateratako Gazteen Arduren Gutunen balioa eta konpromisoa aldarrikatu nahi dugu.

Hori dela eta, **DEIA** egiten dizuegu:

- **Ikasle guztioi**, Gazteen Arduren Gutuna ezagutu dezazuen. Ikasle nagusiek txikiak irakurri eta aurkeztu.
- **Irakasle guztioi**, Gazteen Arduren Gutuna ezagutu dezazuen, gero eskolan zabaltzeko eta ingurumen gaiak gehiago lantzeko. Laguntza behar izanez gero, Ingurugelari eskatu.
- **Ikastetxeko zuzendarioi**, Gazteen Arduren Gutuna Hezkuntza Komunitate osora zabal dezazuen, bereziki ikasle eta irakasle artean, ikasgeletan planetaren egoera gehiago landu ahal izateko eta ikastetxearen kudeaketa jasangarriagoa lortzeko. Ikastetxeko web orrialdeetan Arduren Gutuna jar dezazuen.
- **Eskolako Agenda 21 programan sartuta zaudeten ikastetxeoi**, aurrez zorionduz, IRAES21 sarera sartzera anima zaitezten.
- **Eskola Agenda 21 programan ez zaudeten ikastetxeoi**, programan sartzera animatzen zaituztegu, ingurumenaren aldeko ekintzak egiteko eta gainontzeko ikastetxeei komunikatzeko.
 - **Gure familiako** guztioi etxean ingurumenaren aldeko ekintzak praktikan jartzera eta seme-alabak kontzientziatuzera deitzen zaituztegu. Eta ikastetxean ingurumenaren aldeko ekintzetan parte hartuzera animatu ere bai.
- **Gure lagunei eta gazteria osoari**, arduradun garrantzitsuak garen neurrian, ingurumenaren konpromisoak hartzeko deia egiten dizuegu.
- **Komunikabideoi** Gazteen Arduren Gutuna publikatzera eta ingurumenaren alde lan egitera animatzen zaituztegu, kontsumoaren murrizketa eta aurrerakuntza teknologiko jasangarriagoak bultzatzeko.
- **Auzokideoi eta herritarro** laguntza eskatzen dizuegu Arduren Gutuna zabaltzeko. Gu gazteok maila txikian egiten duguna, herritarrok maila handiago batean praktikara eraman ahal duzue eta. Geuk gure ingurukoei esaten badiegu, eta hauek beste batzuei kate luze bat sor daiteke Brasileko Gutuna ezagutarazteko.
- **Gizarteko eragileoi** Arduren Gutuna zabaltzeko eta ingurumen arazoan konponbideekin konprometitzera deitzen zaituztegu.
- **Udalari** Gazteen Arduren Gutuna ezagutzera, gero politikariei eta jendeari zabaltzeko eta planetaren zaintzarako ekintzak antolatu eta horrelakoetan parte hartzeko. Eskolako Agenda 21 bezalako proiektuak bultzatzeko eta ikastetxeek egiten duten esfortzu handia, zuek ere egiteko.
- **Euskadiko politikarior** eta **Gobernuari**, erabakiak hartu aurretik ingurumena kontuan izan dezazuen eta lantegi "garbiak" sor ditzazuen lanpostu gehiago izateko.
- **Instituzio publiko guztioi**, ingurumenari buruzko informazioa emateko, laguntza emateko, arautzeko eta arautegia betearazteko.

Euskadiko ordezkariak, estatu eta Europa mailan burutuko diren konferentzietara, eramango dituzte Arduren Gutuna zabaltzeko hemen adostutako ekimenak, bertan planetako beste tokiko neska-mutielekin eztabaidatzeko eta konpartitzeko.

Busturian, 2011ko maiatzaren 12an

Dei honekin arduratsu sentitzen bazara eta zeuk ere bultzatu nahi baduzu laguntza sinadura emateko aukera daukazu web orrialde honetan: <http://iraes21-ikasleak.blogspot.com/>



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRIANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

